



IPUIN EROA

Iñaki Zubeldia

Estibalitz Jalonen marrazkiak

Desclée De Brouwer



Ipuin hau guztiz eroa da, horretaz seguru egon zaitez. Eta sinesten ez baduzu, berriz, irakurri, irakurri... Ikusiko duzu zeinen eroa den. Honelako ipuin batean edozer gauza gerta daiteke. Irudimenak ez du mugarik. Zailtasun guztiak erraz gainditzen dira. Eta, apika, irakurtzen ari zaren bitartean, esango duzu behatz erakuslea burura eramanez:

“Tipo hau ez dago burutik sano”. Baina ipuin hau idatzi duena gustura geratuko da, liburuxka honek irakurlearengan irribarre batzuk eta barre algara luzeren bat sortzen baditu.



Ipuin honen hasiera nahiko xelebrea izan zen. Martxoaren 6an ohean nengoen ni neguko gripe txar batek jota, eta nire seme txikia, Eñaut, etorri zitzaidan ohera esanez:

—Aita, zergatik ez ditugu munduko animalia guztien artetik baikoitzetik hamarna Ikaztegietara ekartzen?

—Zail samarra duk hori, mutiko. Non gordeko ditiagu? Eta zeinek emango ziek jana? Eta nork garbituko ditik haien kakak? -galdetu nion nik desanimatzeko asmotan.

Baina bai zera, hura desanimatu... ezta gutxiagorik ere. Lehen baino pisuago jarri zen:

